Sagardoa kontsumitzen jarraitzeko deia Bizkaian

Kezka handiarekin baina, aldi berean, ilusio handiarekin hasi dute denboraldia sagardogileek

ZORNOTZA

Bizkaian ere kezka handiarekin baina, aldi berean, ilusio handiarekin hasi dute sagardotegietako denboraldia, eta, zailtasunak izango direla jakinda ere, dei egin diete herritarrei bertako sagarrarekin egindako edariak kontsumitzen jarraitzeko, etxean zein sagardotegian.

Une honetan zortzi dira Bizkaian sagardoa egin duten upategiak, horietako lau Euskal Sagardoa jatorri izenarekin. Euskal Herriko beste lurraldeetan bezala, Bizkaian ere uzta txikiagoa izan da aurten eta, ondorioz, iazko 150.000 litroak 73.000 litrotan geratu dira. Izan ere, aurreko uztaren ugaritasunak sagarrondoak agortzea eragin zuen eta iazko negu epelak fruitu eskasia eragin zuen.

Edonola ere, kalitate handiko sagardoa egitea lortu dute eta prest dago kontsumitzeko. «Pandemiak ekarritako zailtasunak gorabehera, Bizkaia ez da sagardo sasoirik gabe geratu aurten, herrialdeko ekoizleen ahaleginari eta ilusioari esker», nabarmendu du Jose Antonio Zamalloak, Bizkaiko Sagardogintzako lehendakariorde eta Zornotzako Uxarte upategiko nagusiak. Ahalegin horretan, Zamalloak bertako sagarraren alde egindako apustu sendoa nabarmendu du, «hori baita kalitaterik onena eskaintzeko berme bakarra».

Sagardo denboraldiari dagokionez, sektoreak protokolo espezifiko bat garatu du, egungo osasun egoerak baldintzatutako arauak betetzeko jarraibideak jasotzen dituena, «jendeak sagardo berriaz ahalik eta segurtasun handienarekin gozatu ahal izan dezan eta esperientzia erakargarriagoa eta berritzaileagoa izan dadin». Horrela, mahaietan lau pertsona egongo dira eta zerbitzua mahaian bertan eskainiko da, ezarritako segurtasun-distantziekin eta sagardo berria mahaian dastatuz».

«Egokitzea tokatu zaigu, eta, horregatik, aurten sagardoa kontsumitzeko modua aldatu egingo dugu. Baina horrek ez du eragotziko gero eta jarraitzaile gehiago dituen edari batez gozatzen jarraitzea», gaineratu du Zamalloak.

Iazko balantzeari buruz, Bizkaiko sagardogileen lehendakariordeak «oso urte eskasa» izan zela dio. «Alde batetik, konfinamenduak bete-betean harrapatu zuen txotx denboraldia, nahiz eta gero udan berriro lanean hasteko aukera izan genuen».

Bestetik, botilako salmentei dagokionez, herrialdeko azoka guztiak bertan behera geratu zirela gogoratu du, horrek ekarri zuen galera handiarekin, eta sare komertzialean ere jaitsiera nabaritu zela nabarmendu du.

Hori bai, Internet bidez egindako salmentak igo egin zirela dio Zamalloak, baita salmenta zuzena ere. Ildo horretan, aurreko urteetan baino salmenta zuzen gehiago egin dutela onartu dute Bizkaiko sagardogileek.

Modu batera edo bestera izan, iazko sagardo portzentaje bat saldu ezinik geratu dela dio Zamalloak. Hori bai, aurtengoan ekoizpena txikiagoa izan denez, «bata besteagaz apur bat konpentsatzea» lortuko duten itxaropena azaldu du.

Bizkaiko zortzi sagardotegietako ordezkariak, aurtengo denboraldiaren aurkezpenean. GARA

UZTA TXIKIAGOA

Euskal Herriko beste lurraldeetan bezala, Bizkaian ere uzta txikiagoa izan da aurten. Ondorioz, iazko 150.000 litroak 73.000 litrotan geratu dira. Edonola ere, kalitate handiko sagardoa egitea lortu dute eta prest dago kontsumitzeko.

BIZKAIAN
BIZKAIKOA.

ETXEBARRIA SAGARDOA
LEARTIBAI SAGARDOA LAN. KOOP.
UXARTE SAGARDOA
EGUSKIZA SAGARDOA
AXPE SAGARDOA
LAKA-ERDI SAGARDOA
ERDIKOETXE SAGARDOA
ETXERRIAGA SAGARDOA

www.bizkaikosagardoa.eus